

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 55/2021 Erabakia, otsailaren 9koa. Onestea nekazari gazteek enpresak sortzeko diren laguntzen 2021eko deialdia. 6.1. neurria

Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 12ko 30/2016 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaion 06.1. "Nekazari gazteek enpresak sortzea" neurrirako laguntzak arautzen dituzten oinarriari, 2015-2020 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programaren esparruan, eta 1305/2013 Arautegian ezarritako mugen barruan, bai eta laguntza horren 2016ko deialdiari ere.

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 9/2017 Foru Dekretuaren bidez, aldatu egin zen oinarri arautzaile horien zati bat, eta laguntza horien 2017rako deialdia egin zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 13ko 11/2018 Foru Dekretuaren bidez, Europako Batzordearen C(2017) 3859 Erabakiaren bidez 2015-2020 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programaren bigarren aldaketa onetsi izanaren ondorioz, berriz aldatu ziren aipatutako oinarriak aldaketa horretara egokitzeko eta oinarrietako alderdi batzuk zehazteko eta argitzeko, eta laguntzen 2018rako deialdia onetsi zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 26ko 10/2019 Foru Dekretuaren bidez, Europako Batzordeak 2018ko abuztuaren 13ko C(2018) 5542 Azken Erabakiaren bidez onetsitako 2015-2020 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programaren hirugarren aldaketara egokitzearren aipatutako laguntzen oinarri arautzaileak, berriz aldatu ziren beroriek eta laguntzen 2019rako deialdia onetsi zen.

Geroago, Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 7ko 14/2020 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaion berriz ere aldatzeari laguntza horren oinarri arautzaileen alderdi batzuk, hartara, alde batetik, oinarriok egokitzeko Europako Batzordeak 2019ko abuztuaren 12ko C(2019) 6120 Azken Erabakiaren bidez onetsitako 2015-2020 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programaren laugarren aldaketara eta, bestetik, hobeto eta zehatzago ulertzeko eta laguntza hobeto eta zehatzago aplikatzeko. Eta laguntzaren 2020rako deialdia onetsi zen.

Kontuan hartuta Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldirako gastuen aurrekontuan badagoela partida bat laguntza lerro honetarako, onespena ematen zaio 2021erako deialdiari, eta hari aurre egiteko behar besteko kreditua gordetzen da.

Horren ondorioz, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatu eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea nekazari gazteek enpresak sortzeko laguntzaren 2021eko deialdiari (6.1. neurria), honako ezaugarri hauekin:

a) Lekua, epea eta modua: 20 egun baliioduneko epean, erabaki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik, ustiategiaren kokalekuko Eskualdeko Nekazaritza Bulegoan edo Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuan. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritakoa kaltetu gabe. Epearen azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliiodunean amaituko da.

Eskaerak inprimaki normalizatuan aurkeztuko dira eta harekin batera laguntzaren oinarri arautzaileen arabera onetsitako agiriak aurkeztuko dira. Halaber, laguntza eskaerak eta laguntza ordaintzeko eskaerak bide telematikoz egin ahalko dira, Arabako Foru Aldundiaren web orrian.

b) Hautapen irizpideak: deialdi honi lotutako laguntzak emateko espedienteen hautapen irizpideak izango dira oinarri arautzaileen 10. artikulua ezarritakoak.

c) Laguntzen zenbatekoak: 2021eko deialdirako, laguntza hauen zenbatekoak izango dira oinarri arautzaileen 11. artikulua ezarritakoak.

d) Kreditu erreserba: Arabako Foru Aldundiaren 2021eko gastuen aurrekontuko 40.1.01.42.01.770.00.11 "Nekazari gazteek enpresak sortzea. Deialdi berria" partidaren kontura, 1.450.000,00 euro guztira, urteko hauetan:

- 2021: 450.000,00 euro. Zorpekin erreferentzia: 21.5.21.105.284/000
- 2022: 250.000,00 euro. Zorpekin erreferentzia: 21.6.22.105.2/000
- 2023: 250.000,00 euro. Zorpekin erreferentzia: 21.6.23.105.2/000
- 2024: 250.000,00 euro. Zorpekin erreferentzia: 21.6.24.105.1/000
- 2025: 250.000,00 euro. Zorpekin erreferentzia: 21.6.25.105.1/000

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahalko da urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erresebatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidan edozein zioerengatik gerta daitekeen kreditu gehikuntzagatik ere.

Bigarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea laguntza deialdi hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta haren aurka beraztertzeko errekurtsioa aurkez dakioke organo horri, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 9a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE